

Berriketan

GLORIA SUKIA • Jostuna

Bizitza osoa orratz, hari eta oihal artean





ARENA BAR

adats

ADATS ILEAPAINDEGIAK DEBA
Hondartza kalea 13 DEBA
T. 943 19 27 00

www.facebook.com/adatsileak
@adatsileak



URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

Halal harategia
Fruta-denda / Supermerkatua

Razan



943 574 710 / 688 749 337
Sokagin, 2 behe. DEBA

Urlo

Aholkularitza
Komunitateen
kudeaketa
Inmobiliaria

Tel. 943 192 471 • urlo@urloasesoria.eus
Sokagin, 2 behe. Posta Kutxa 3. 20820 DEBA



Iturkale 2 behe - Deba, Gipuzkoa | 943 19 26 31

Zumardi
pentsioa



Tel.: 943 19 23 68
info@pensionzumardi.com
www.pensionzumardi.com



IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

k
kutxabank

Berriketan .eus

parte hartu
parte izan



Odontologoa
MAITENA ARRIZABALAGA

HORTZ KLINIKA

Gipuzkoa Kalea 20, Zarautz

Odontologoa
NORA UNZETABARRENETXEA

mn

943 830 424 - 653 921 712



Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportajeak,
photoshop-eko erretokeak...)

andersalegi@gmail.com

Tel: 685 703 843



BERRIKETAN 307

2025eko ekaina

Azaleko irudiaren egilea:
Nerea Bedialauneta Alkorta

AURKIBIDEA




9 ALBISTEAK
Bertsoak, antzerkia,
Begiradak ikuskizuna
eta musika protagonista
Iturri Ondoan



10 ELKARRIZKETA
Laster Alemaniarako
bidea hartuko duen
Andrea Aldalur
dantzariarekin solasean



16 ELKARRIZKETA
Bizitza osoa jostintzaren
munduan eman duen
Gloria Sukia
artisaurekin *Berriketan*



20 ALBISTEAK
Jose Ignacio Treku,
Nagusilan, Haitz-Haundi
elkartea eta Josu Salegi
Ostolaza Sarien jabe



25 ALBISTEAK
Zabalik dago festetako
Umeen Eguneke
danborradarako
izen-ematea



28 AGENDA
Datozen asteotan egingo
diren jarduerak eta
ekimenak jaso ditugu
atal honetan

Jarrai gaitzazu!



berriketan.eus



LAGUNTZAILEAK



DEBATXEO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARGITARATZAILEA

Zuhatzak Euskara Elkartea
HELBIDEA
Ifar kalea, 12 behe. 20820 (Deba)

TELEFONOAK

943 19 13 83 / 632 04 33 22

HEDABIDEAREN E-MAILA

berriketan@berriketan.eus

ELKARTEAREN E-MAILA

koordinatzailea@zuhatzak.eus

ERREDAKZIOA

Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta
eta Alex Turrillas

KOORDINATZAILEA

Izaro Aulestiarte

PUBLIZITATEA

Joseba Escudero eta Alex Turrillas

LOGOTIPOAREN DISEINUA

Iñaki Elosua

MAKETAZIOA

Maku Oruezabal

TIRADA

1.400 ale

MAIZTASUNA

Hilabetekaria

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

LEGE GORDAILUA

SS/246/2009

ISSN: 2171-7656

Oharra:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA, GUTUNAK eta KOLABORAZIOA ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@berriketan.eus helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Zientzia herritik eta herriarentzat

Aurten ere Baso Bete Zientzia ekimena ikusgarria izan da, Debako Kultur Elkartean eta, lehen aldiz, Itziarren, Burugorri gainean, antolatutako solasaldi zikloarekin. Guztira 9 hitzaldi izan dira eta bertan jende ugari elkartu da, zientzia eta aisialdia modu naturalean uztartuz.

Solasaldietan gai zientifiko anitzak landu ditugu, hala nola terapia aurreratuak, optimizazioaren garrantzia matematiketan, oilo lumen erabilera material berriztagarrien garapenean, gas naturalaren itsas garraioa, energia berriztagarrien kudeaketa edota zibersegurtasuna. Gure herriko eta inguruko zientzialariek modu gertuko eta parte-hartzailean azaldu dituzte gaien konplexutasunak eta entzuleek galderak egiteko eta hausnarketa interesgarriak partekatzeko aukera izan dute.

Aurten bereziki pozgarria izan da Itziarren lehen aldiz egin dugun saioa. Burugorri gainetik egindako topaketa honek erakutsi du zientziak ez duela mugarik eta jakin-mina eta parte-hartzea handia dela inguruotan.

Hurrengo edizioa prestatzeko gogotsu gaude, baina esku gehiago eta ideiak behar ditugu ekimenak aurrera egin dezan. Era berean, solasaldietan parte hartzeko prest dagoen zientzialari orori gonbidapena luzatzen diogu, programazioa irekita baitago.

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi! Zientzia herritik eta herriarentzat sustatzen jarraituko dugu. Hurrengo solasaldietara arte!

Baso Bete Zientzia jardunaldietako antolakuntza taldea

Diskriminazioa gaindituta, liburutegia denontzat izango da

Bai, lortu dugu! 2023ko azaroan sortu zen Liburutegia Denontzat taldea. Helburua: Debako liburutegian urte luzez haurrekiko eta zaintzaileekiko ematen zen diskriminazioa etetea. Ia bi urteko borrokaren ondoren, hemendik eta handik ate-joka ibili ostean, herritarren babesas jaso (500 sinadura bildu, 130 gutun bidali Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzura) eta udal gobernuari bideratu eta gero, hainbat kale liburutegi eta hamaika ekintza burutu ondoren, azkenean lortu dugu udalak gure eskaerak aintzat hartzea eta liburutegiak urte luzeetan izan duen arautegi diskriminatzailea aldatzea. Ekainaren 16az geroztik Debako liburutegiak ateak eta ordutegiak denoi zabaltu dizkigu eta arautegi berriaren arabera funtzionatzen hasi da. Haur, gazte, heldu zein nagusi, denok edukiko ditugu eskubide eta betebeharrak berdinak.

Oinarrizko eskaerak ziren Liburutegia Denontzat taldearenak eta arautegi berriak hauek jasotzen ditu: haur liburutegian ez da adin-tarteen araberako ordutegirik egongo eta liburutegi orokorrak duen ordutegi bera izango du; 0-2 urteko umeek haur liburutegian egoteko aukera izango dute —lehenago ez bezala— eta erabiltzaile txartela egin ahal izango dute. Aldaketa hauekin batera, liburutegiaren aro berri honetan zaintza erdigunean jartzea eta malgutasunez jokatzeko espero dugu.

Bidea ez da erraza izan eta eskerrak eman nahi dizkizuegu urte hauetan nola edo hala (babesa ematen, gure ekimenetan parte hartzen, zuen testigantzak gurekin partekatzen, animoak ematen) hor egon zareten guztioi. Eskerrik asko eta zorionak zuei ere, denoi, diskriminazioa gaindituz eta denona den ondasun honen —liburutegiaren— funtzionamendua hobetuz, denok irabazten dugulako, bizikidetzat sustatuz herriak irabazten duelako.

Liburutegia Denontzat



ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICIÓN:
 Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
 E-mail: asketa@telefonica.net
 www.asketa.net

ALMACÉN:
 Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)





Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tfnoa.: 943 191 095



IRAIA AGIRREZABALA

Zeinen ederra den

Azken bi urteotan zenbat aldiz abestu ote dugun *Zeinen ederra izango den* Iturrian Koruko emakume taldeak... Abesti honen harira, zeinen ederra izango den ez; zeinen ederra den talde honetako partaide izatea, zeinen ederra horrelako talde batean parte-partaide sentitzea, zeinen ederra den kalera irten eta guztiok batera abestea. Hain gustura jarduten dugu, kalera irteteko ordua jartzen baitugun, baina erretiratzeko eta kantukak bukatzeko... komeriak. *XXI. mendekuak gara*, baina mendekurik ez, erakustaldia bakarrik!!

Talde anitza sortzen dugu, *eletrizitatez* bete, errespetuz eta goxotasunez elkar zainduak. *Lisboaraino* joango nintzateke zuekin, edonora, *aberriaren mugak* apurtuz.

Ahizpatasunaren kontzeptua modan dagoen honetan, Iturrian Korua adibide garbia dela deritzot. Eskerrak eman nahi dizkiot taldeko parte hartzaile bakoitzari, ederra delako zuekin egotea eta momentu horiek partekatzea.

Lehenengo, itzalaldiari buruzko erreflexio-kexa bat idatzi behar nuen, "pataleta" bat; baina *ihesa zilegi* omen eta kexak alde batera laga eta esker hitzak aukeratzeari ederra iruditu zait. Askotan horrenbeste kostatzen zait... Ez dut *lehenengo lepotikan*, *lehenengo lepotikan*, *lehenengo lepotikan burua* eduki nahi. Esker hitzak gehiago eta sarriago baleude guztiak beste era batera funtzionatuko lukeelakoan nago. Ardo, abesti eta maitasun artean *pizti gautarrak hontzari* ere esker hitzak eskainita goxatuko litzateke.

Mila esker, esker mila, eskerrik asko, esker anitz, ekipo!

"Esker hitzak gehiago eta sarriago baleude guztiak beste era batera funtzionatuko lukeelakoan nago"

Informatika
Tresneria
informatikoa

Elektronika
Osagai
elektronikoak

Informatika JLC Elektronika
 Maxpe kalea, 7 - beheja | 20820 DEBA

Tel.: 943 19 17 83
 Faxa: 943 19 18 36
 Mugikorra: 686 939 601

informatikajlc@informatikajlc.com

atari
INMOBILIARIA

943 19 22 63
atari@atarideba.com
www.atarideba.com

ieraenea
akademikoa

"maite ditut nire/gure basterrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
 Tel: 943 53 95 20- E-mail: ieraeneda@gmail.com

LAMARIANO
 Oinetakoak

Itur kalea 14 - Deba
 943 19 12 52



1951

Ezkontzako bankete berezia

1951ko argazki hau urte gutxi batzuk lehenago inauguratutako Lizaso harategiaren barruan eginda dago. Ziur aski, Hilario Allica da egilea eta eszena surrealista samarra erakusten digu. Asun Alcibarren eta Jose Manuel Mancisidorren ezkontzan ateratako irudia da; harategian bertan egin zuten, hain zuzen, bazkaria. Alcibar familia saltokiaren gaineko pisuetako batean bizi zen.

Irudiaren erdian *Carlos Monte* ezizenez ezaguna zen Carlos Alcibar azaltzen da, aizkora eskuan. Emazte-gaiaren aita zen, ezkontzako aitabitxia. Bere jarrera eta posea ikusita, Jose Manuel senargaiari Asun alabarekin ondo portatzeko eskatzen ari zaiola dirudi, arriskuaz ohartaraziz.

Argazkiko beste protagonista batzuk ere identifikatu ahal izan ditugu. Ezkerretik eskuinera: Karmele Berecibar, haren atzean Emilio Esparza (*Churrero*), Carlos Alcibar (*Carlos Monte*), Asun Alcibar emazte-gaia, Jose Manuel Mancisidor senargaia, Juanito Esnaola eta, haren atzean, Debara iritsi berria zen Anes Arrinda parrokoa.

Carlos Monte pertsonaia ezaguna izan zen Deban. Tren geltokiko maletazaina izan zen eta Jose Ignacio Urbietak haren omenezko erraldoia sortu zuen 1980ko hamarkadaren erdialdera.

Alex Turrillas Aranzeta



RIKARDO IDIAKEZ

Ni, irakasle

Ekaina iritsi da eta irakasleoi ere badagokigu, besterenak epaitzeaz gain, egindakoez eta ez egindakoez hausnartzea. Lehen kolpean, tentagarria da, gure miseriei izkin egite aldera, etsai prefabrikatuen kutxatik aitzakia bat aukeratzea: guraso petralak, ikasle alferrak, lan-baldintzak eta greba-sindikatuak, pantailak eta *smartphoneak*... Horietako edozein hartu eta dozenaka zutabe idatzi ahalko nituzke guztiaren errua horretxeri botaz.

Baina ez. Goizero urdaiazpikoa jenez gosaltzen dugun langile publikook zor diogu geure buruari autokritikarako betatxoa. Arduraz bizi baitut irakaskuntza-lana; nire lanarekiko arduraz, esan nahi dut. Eta aurtengoa ikasturte petrala izan dut: lorpenak lauso, erantzunak urri eta zalantzak hamaika. Ahor, ebatzi ezin izan ditudan batzuk.

Lehena: zerbait ikasi al dute ikasleek? Sentipen garratza eragiten dit galderak, eta erantzunak zer esanik ez.

Segidan, bigarrena: onaren hobe beharrez, dagokion adinerako aurreikusitako konpetentziak lortzeko ez gaitasun ez espektatibarik duen ikasleari behin eta berriro azterketak eginaraztea zer da, ikasleari aukerak ematea ala bere burua eta inguruko guztiak engainatzea? Bestela esanda, ez al da ikaslea gaur frustratu ez dadin biharko depresiora bultzatzea?

Hirugarrenik: etenik gabe gaztelaniaz ari diren eta euskararekiko estimu-imintziorik egiten ez duten ikasleei euskaraz jardun dezaten etenik gabe txapa ematea (bakarren batzuk euskararen kontrako fanatiko bihurtzeraino) eraginkorra al da? Ala ez dugu hobe izango euskaraz prepezioz ikasi nahi (eta ahal) dutenei euren espazioa, babes eta arnagunea ematea?

Laugarrenik, aniztasuna hitz madarikatua da; kontu zimela. Inolako ekarpenik egin al diet nik ez erdaraz ez euskaraz hitzik egiten ez dakiten mutiko txinatar eta neskato pakistandar euskadiratu berriei?

Bosgarrenik, ongizate emozionala berriketarako ponpoxoa da, baina, erreferentziazko irakasle bezala, ama galdu berri duen ikasle nerabeari benetan lagundu al diezaioket eguneroko *zermoduzzaude* eta *lorikeginalduzu* galdera gupidatsuak egiteaz gain?

Ikasleak ez, eta neure burua gehiago estutu beharko dut hurrengo ikasturtean.

"Goizero urdaiazpikoa jenez gosaltzen dugun langile publikook zor diogu geure buruari autokritikarako betatxoa. Arduraz bizi baitut irakaskuntza-lana; nire lanarekiko arduraz, esan nahi dut"

Bailarako herritar guztiei zuzendutako lau saio egingo dituzte Marea Gora zikloan



Debarreneneko Ikasten Esperientzia Eskolak Marea Gora ekimena dakar aurrean ere Debara, hirugarrenez. Uztailaren 2tik hilaren 23ra bitartean, eskualdeko herritar guztiei zuzendutako lau hitzaldi egingo dituzte Kultur Elkartearen (19:00etan).

Ekainaren 18an aurkeztu zuten udalaren eta Kultur Elkartearen babesa duen egitasmoa. Antolatzaileek azaldu bezala, profil eta ibilbide ezberdineko gonbidatuak izango dituzte beste behin eta gai ezberdinak jorratuko dituzte hitzaldietan.

Egitaraua uztailaren 2an abiatuko da, Pilar Kaltzadaren *Haurra izatea*

gauregungo munduan solasaldiarekin. Kaltzada (Donostia, 1970) Save The Children erakundeko Espainiako lehendakaria da eta hogeitertetik gorako eskarmentua du komunikazioaren alorrean. Gogoetarako gaia izango du hizpide Deban, besteak beste, "desberdintasunak, gatazkek eta klima aldaketak markatutako gaur egungo munduan haur izatea zer den" azalduz.

Arte Eskola gogoan

Bigarren saioak herriko historian murgiltzeko aukera eskainiko du uztailaren 9an, *Debako Arte Eskola*.

Sorkuntza, eztanda eta Haur Adierazpen Tailerra hitzaldia emango baitute Jose Mari Larramendik eta Mikel Mendizabalek. Hizlarien testigantzak oinarri hartuta, Debako Arte Eskolaren historiak eta espazio horrek izandako eraginaz ariko dira Kultur Elkartearen. Horrez gain, Deban 1970ean egin zen Haur Adierazpeneko Tailerrean bizitako esperientziak partekatuko dituzte.

Itsasoaz ariko dira hirugarren hitzorduan, hilaren 16an. Gonbidatua Xabier Irigoien AZTIko zuzendari zientifikoa eta ozeanografoa izango da eta *Zenbat arrain daude itsasoan? Ekosistema mesopelagikoa, argi pixka bat itzalen gainean* hitzaldia emango du. Itsaspeko munduaren funtzionamendua azaltzeaz gain, itsasoa zaintzeak daukan garrantziaz eta gizartearen erantzukizunaz hitz egingo du.

Itxiera hilaren 23an

Bestelakoa da oso uztailaren 23an programazioa ixteko hautatu duten gaia. Imanol Querejeta Donostia Unibertsitate Ospitaleko psikiatria zerbitzuko langile ohiak buruko osasuna eta erronka emozionalak izango ditu hizpide *Gizartearen psikiatrizarazioa eta etorkizuna* saioan.

ekodenda,
dietetika,
belardenda

ZERBITZUAK:



- * Fisioterapia - Osteopatia
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Podologia
- * Dietista

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818

Uztailaren 4an abiatuko da Iturri Ondoan, lau ikuskizunez osatutako egitarauarekin



Beste urte batez, askotariko ikuskizunak izango dira uztailean Debako Plaza Zaharrean. Euskaraz sortu eta euskaraz pentsatutako diziplina desberdinetako kultur ekitaldiak antolatzea da Iturri Ondoan egitasmoaren ardatza eta aurtengo programazioak lau proposamen biltzen ditu; bertsoez, antzerkiaz, Begiradak ikuskizunaz eta musikaz gozatzeko aukera izango da. Emanaldiak 22:00etan hasiko dira, beti bezala.

Lehen hitzordua uztailaren 4an izango da: *Bertso saio espekulatiboa* egingo dute Onintza Enbeitak, Sustrai Colinak eta Nerea Ibarzabalek, Leire Vargas gai-jartzailerarekin batera. Eta hurrengo ostiralean, hilaren 11n, *Dada ii Lala* antzezlanaren taularatuko dute Les Bobé-Bobé konpainiako Josune Velez de Mendizabal eta Ane Gebara aktoreek, Jason Guerra zuzendariaren gidaritzapean.

'Begirada' berriak

Uztailaren 18an literatura, irudiak eta musika uztartuko dituen Begiradak kultur emanaldi berezia izango da, hamabigarrenez. Udalak nabarmendu bezala, "12 urte

jada Begiradak antolatzen hasi ginenetik. Orduetik hona zenbat irudi, zenbat testu, zenbat kantu eta antzerki ikusi eta entzun ote ditugu, zenbat dantza... Herritarrek herritarrentzat sortuak guztiak, hartu-eman betean".

Bada, herritarren saretzea eta sorkuntza helburu, bide berean jarraitzen du ekimenak, "kide zaharrei helduz eta berriak ekartzen saiatuz, kostatzen zaigun arren, aitor dezagun". Aurten, dena den, "sorpresatxo bat" dakar ikuskizunak, Deba eta Kanboren arteko senidetze hitzarmenaren 25. urtemuga betetzen dela eta, hango herritarrek batu baitira egitasmoa; irudi-gile zein idazle lanetan arituko diren zazpi partaide berri. "Pozik eta gogotsu gaude, ikuspegi desberdinak, egiteko eta idazteko beste modu batzuk, hots diferentteak... *Begirada* berriak ekarriko dizkigutelako, ziur", aurreratu dute.

Uztailaren 24an (osteguna) amaituko da aurtengo egitaraua, Xiberoots musika taldearen kontzertuarekin. Euskal doinu tradizionalak reggaearekin nahasten ditu Zuberoan sorturiko taldeak.



arteondo@arteondo.es • 943 19 93 34

Kolegiatu zkia.: 20001123

Amaia & Esnaola

ODONTOLOGIA

Fermin Calbeton 19- 3 ezk. Eibar

943 20 72 17 | 660 42 28 08

amaia@esnaolaodontologia.com

“Ezin da hitzez azaldu eszenatokira igotzean bizi duzun sentsazioa, ez nuke ezerगतik aldatuko”

ANDREA ALDALUR • Dantzaria




Kulunkan hasi zuen bere ibilbidea Andrea Aldalurrek (Deba, 2005) eta dagoeneko hamabost urte daramatza dantzaren munduan murgilduta. Gustura ari da eta ikasten jarraitzeko asmoa du. Ilusioz ekingo dio, hortaz, ikasturte berriari irailen. Hamar hilabeteko egonaldia egingo du Alemanian; Berlingo Dart Dantza Konpainiak dantzari gazteentzat eskaintzen duen Dart DSP programan (*Professional Dance Program*) parte hartuko du.

Andrea Aldalurrek jaioterrian eman zituen lehen pausoak dantzari gisa, lau urterekin. Ez omen zuen oso gogoko hasieran, baina badirudi gustua hartu diola orain dantzari. "Dantza egiten ari naizenean ez dut beste ezertan pentsatzen", aitortu du. Azken urteotan dantza ikasketak egin ditu Gasteizen eta Alemaniarako bidea hartuko du laster, pozarren: "Ikasten jarraitzeko, ahal dudan guztia hobetzeko eta jendea ezagutzeko gogoz nago".

Erronka berri bati ekingo diozu laster Berlinen, Dart Dantza Konpainiaren DSP programan parte hartzeko aukera izango baituzu. Zertan oinarritzen da zehazki? Zertan ariko zara datozen hilabeteotan?

Dart Dantza Konpainiaren ikasketa-programan ariko naiz. Berez, maila profesionalera iritsi aurretik esperientzia hartzen laguntzen dizun programa bat da; dantzari profesionalekin lan egiteko aukera ematen du eta mugimendua hobetzen laguntzen du. Gainera, programan irakasle desberdinek parte hartzen dute urte osoan zehar eta hori oso lagungarria da teknika eta estilo berriak ikasteko.

Nolatan sortu zitzaizun aukera hori? Programan parte hartzeko sarrera-probaren bat egin behar izan zenuen? Florentzian egin nuen dantza proba bati esker lortu





dut bertan sartzea. Hainbat konpainiatako kideak izan ziren proba hura ikusten eta haien artean zegoen Dart-eko zuzendaria; egia esan, neuzkan aukera guztien artean hori zen gehien gustatzen zitzaidana. **Gogorrak izaten al dira sarbide-probak? Alegia, zaila izan al da horra iristeko prozesua?**

Nire ustez, probak bere horretan ez dira zailak izaten; azken finean, balleteko eta dantza garaikideko eskola bana egiten dugu probetan eta dantzariak horretara ohituta gaude, eskola horiek egunero egiten baititugu. Zailena probara iristeko bidea izaten dela esango nuke: egiten duten lehenengo aukeraketa, bideoen grabazioa, eguneroko lana, bidaiak, gastuak...

Aurreikusten al zenuen hautatuen artean egotea? Pozik al zaude?

Ez nuen espero, baina oso pozik nago, noski. Konpainia gehienek proba egin ondoren, unean bertan, esaten dizute onartuta zauden ala ez, baina beste batzuek beranduago eman ziguten beren erabakiaren berri (emaillez) eta azken horien artean zeuden, hain justu, Dart konpainiakoak. Proba egin eta astebeterra mezu batzuk iritsi zitzaizkidan, adibidez, baina ez neukan Dart-en berririk eta beste aukerek ez ninduten guztiz konbentzitu... Hilabete beranduago jaso nuen azkenean Dart-eko kideen mezua eta harriduraz har-

tu nuen, hainbeste denbora pasa ostean ez bainuen espero. Kontua da konpainiak audizio itxiak izan zituela garai berean, bideoz nahiz presentzialki, eta nik ez nituen egin, uste nuelako ez nindutela onartuko. Audizio itxiak amaitu eta Florentziako proba egin ondoren, hautaketa orokor bat egin zuten eta horregatik abisatu zidaten hain berandu. Ezin nuen sinetsi. **Zenbat hilabete egingo dituzu Berlinen? Zer ikasi nahiko zenuke bertan?**

Irailean hasiko naiz eta ikasturtea egingo dut bertan, ekainera arte. Esperientzia bete-betea izatea espero dut; ikasten jarraitzeko, ahal dudan guztia hobetzeko eta jendea ezagutzeko gogoz nago.

Zer giro dago Berlinen dantzaren inguruan? Eta Alemanian oro har?

Ez naiz inoiz bertan egon eta, egia esan, ez dakit oso ondo zer giro aurkituko dudan. Entzun dudanaren arabera, badakit hemengoarekiko oso desberdina izango dela, baina primeran moldatuko naizela uste dut. Egia esan, dantzaren munduan hemen baino aukera gehiago daude bertan. Beraz, ahalik eta gauza gehien egitea eta nire proiektuak aurrera eramatea izango da erronka.

Ballet klasikoko eskolak hartuko dituzu, baita dantza garaikidekoak nahiz beste estilo batzuetakoak ere...



“Kulunkak hainbat gauza eman eta irakatsi dizkit. Bertan eman nituen lehenengo pausoak eta beraiek irakatsi zidaten dakidan guztia”

“Oso exigentea izan naiz beti (...). Perfekzioa bilatu arren, perfekzio hori ez du inork inoiz lortzen, ezta munduko dantzari onenek ere”

Aurretik ere diziplina ezberdinetan aritu izan zara? Aukeran, zein duzu gustukoena?

Beti ibili naiz klasikoan eta garaikidean murgilduta eta txikia nintzenean gimnasia erritmikoa ere egiten nuen, baina nire dantza estilo gustukoena neoklasikoa da; dantza klasikoaren teknika erabiltzen da, baina garaikidearen mugimenduekin uztartuta.

Noiz eta nola hasi zinen dantzan? Lehen urratsak Kulunkan egin zenituen txikitan, ezta?

Lau urte nituenean hasi nintzen dantzan eta 15 urte bete arte aritu nintzen Kulunkan. Hasieran ez nuen oso gustuko, txikitatik gehiago ibilia nintzelako beti kotxeekin, korrika edo beste edozer gauzatan jolasten, baina adineko gehienek taldean izena eman zutela ikusita, nik ere hala egin nuen. Gogoratzen dut amari balleta egin nahi nuela esan niola eta berak hiru egun ere ez nituela egingo erantzun zidala. Baina oso burugogorra naizenez, arrazoiak izan behar beti! Eta horri esker jarraitzen dut hemen 15 urte beranduago. **Zer eman dizu Kulunkak? Ikasturte amaierako emandian parte hartu berri duzu, adibidez, zuk sortutako lan bat taularatu. Harreman estua al duzu taldekideekin?** Kulunkak hainbat gauza eman eta irakatsi dizkit. Bertan eman nituen lehenengo pausoak dantzan eta beraiek irakatsi zidaten dakidan guztia; nik ere dantza

gustuko izatea lortu zuten eta bertan hasi nintzen nire estiloa finkatzen. Adiskidetasuna zer den eta taldean lan egiten ere ikasi nuen. Beti gogoratzen dut bertan ezagutu dudana jendea. Taldekideak kalean ikusteak ilusioa egiten dit beti.

Gasteizko Jose Uruñuela dantza kontserbatorioan egin dituzu azken urteak. Zer nolako esperientzia izan da?

Ikasketa prozesu beteak izan da, ezinbestekoa dantza-aren mundua ezagutzeko eta bertan murgiltzeko. Ez da oso esperientzia "polita" izan, bertan pasa ditutalako urterik txarrenak, baina oso oroitzapen onak eta ahaztezinak ditut; oso lagun onak egin ditut, asko ikasi dut eta nire helburuak lortzen lagundu dit.

Zergatik gustatzen zaizu hainbeste dantza? Zer eskaintzen edo ematen dizu?

Oso exigentea izan naiz beti. Balletak perfekzioa bilatzen du anatomikoki naturalak ez diren posizioetan eta dantza egiten ari naizenean ez dut beste ezertan pentsatzen. Perfekzioa bilatu arren, perfekzio hori ez du inork inoiz lortzen, ezta munduko dantzari onenek ere. Ondorioz, egunero aurreko egunean baino hobeto egin behar duzu dantza, eta horrek zure burua hobetzen laguntzen dizu. Era berean, ezin da hitzez azaldu lan guztia egin ondoren eszenatokira igotzean bizi duzun sentsazioa, ez nuke zergatik aldatuko.



Nola deskribatuko zenuke zure estiloa?

Garbia, sinplea, bisuala eta arretatsua da.

Dantza eta interpretazioa eskutik helduta doazela esan ohi da; taula gainean eraldatu egiten zarela esan genezake?

Egia da oso desberdina dela entseguetan edo eszenatoki gainean dantzatzea. Entseguetan teknikan jartzen duzu arreta, pausoak behar bezala egiteko eta zer hobetu dezakezun ikusteko. Taula gainean, ordea, ezin duzu hori egin publikoa aspertu egiten delako; bertan, adierazi nahi duzuna ikusleei iristea da garrantzitsua, pausoak nola irteten diren, koreografia ahaztu zaizun edo arropa erortzen hasten ote den kezkatu gabe.

Zertan bereizten dira eguneroko Andrea eta oholntza gaineako dantzaria?

Eguneroko Andrea ez da oholntza agertzen denarekiko batere desberdina. Agertokiak "botere" bat ematen dizu, une horretan zuri begira daudelako denak, arreta osoa zugar jarrita, baina botere hori bera ken diezazuke proportzio handiagoan arrazoi beragatik. Beraz, ikusten duzuna naiz, bai kalean, bai eszenatokian.

Zaila egiten al zaizu zure bizitzako gainontzeko arloak dantzarekin uztartzea?

Bai, eskola ordu asko izaten ditugu eta ia egun osoa ematen dugu entseguetan. Geratzen zaigun denbora

“Dantza ogibide bat da gaur egun eta hala izan da betidanik, baina gai honi buruzko informazio asko falta dela iruditzen zait”

libre horretan egin behar izaten ditugu gainontzeko gauza guztiak... Azken finean, beste ikasketa batzuk egiten edo lanpostu batean lanean ari den jendea-ri gertatzen zaiona gertatzen zaigu. Plan askori uko egin behar izaten diot, beti daukadalako dantzarekin zerikusia duen zerbait, emanaldiren bat, audizioaren bat... Oporretan ere entrenatzen jarraitu behar duzu.

Gaur egun dantza ogibide izan al daiteke?

Dantza ogibide bat da gaur egun eta hala izan da betidanik, baina gai honi buruzko informazio asko falta dela iruditzen zait. Dena den, ez da harritzekoa, ni neu mundu honen barruan nago eta oraindik ere ez daukat informazio guztia.

Zer asmo duzu aurrera begira?

Proiektu asko ditut buruan eta gutxika-gutxika banoa horiek abian jartzen. Dena dela, momentuz irailean Berlinera joatea da nire asmoa, eta gero ikusiko da.

Ikasturtea dantzan agurtu du Kulunkak

Adin tarte guztietako 100 dantzarik parte hartu zuten Kulunka taldearen ikasturte amaierako jaialdian. Al-dats pilotalekuan izan zen emanaldia, ekainaren 14an, eta balorazio positiboa egin du Alaitz Izaga taldeko zuzendari eta irakasleak. "Oso pozik gaude, bai. Ondo irten zen dena. Dantzariak asko disfrutatu zuten eta lepo bete zen pilotalekua, guztira 450 ikusle hurbildu baitziren ikuskizunera", laburbildu du.

23 koreografia original aurkeztu zituzten dantzariak. Tartean izan ziren, beste behin ere, dantza klasikoak, garaikideak eta neoklasikoak, baita jazz estiloko piezak

ere. Gainera, berritasun gisa, Kulunka dantza eskolako kide izandako Andrea Aldalurrek ere parte hartu zuen hitzorduan, berak sortutako lan berri bat taularatuz (aurreko orrialdeetan irakurri dezakezue *Berriketan*-ek dantzariari egin berri dion elkarriketa).

Ikasturteari amaiera borobila eman ondoren, atsedean hartuko du orain Kulunkak, baina ez da erabateko geldialdia izango. Izan ere, uztaileko dantza udalekuak prestatu dituzte aurten ere. Bestalde, Izagak gogorarazi du ikasturte berrirako matrikulazioa ere zabalik dagoela jadanik; irailaren 15ean ekingo diote kurtso berriari.



Arg.: IGOR BAROJA

Agintaldi erdian, lanean jarraitzeko konpromisoa berretsi du udal gobernuak



Agintaldi erdiko balantzea egin du udal gobernuak. Eta, bide batez, "herritarrekiko eguneroko konpromisoa" berretsi eta "Deba bizitzeko lekurik onena izan dadin lanean jarraitzeko ilusioa" azpimarratu du.

"Duela bi urte hitzemande bat egin genuen: Deba beti etorkizunera begira egongo zen udalerrria izango zela. Gaur, bide erdian, esan dezakegu ez diogula egun bakar batez ere hitzemande hori betetzeko lan egiteari utzi", nabarmendu du Alazne Txurruka alkateak. "Izan ere, debarren bizitza hobetzea ez da soilik helburu bat, politika ulertu eta egiteko modu bat da, hurbiltasunetik, erantzukizunetik, entzutenetik eta gardentasunetik abiatuta".

44 ekintzetatik 40

Alkatearen esanetan, Gobernu Planean jasotako 44 ekintzetatik 40 abian edo amaituta daude. Baina, aipatu duenez, "garrantzitsuena ez da kopurua, horrek esan nahi duena baizik: pertsonak erdigunean jartzen dituen eta inor atzean uzten ez duen udalerrria gara, guztion

artean eraikitzen dugun udalerrria, hain zuzen".

Garatutako proiektu estrategikoen artean, Zaintza Ekosistema nabarmendu dute, baita Europako Next Generation funtsekin finantzatutako ekimenak ere, hala nola pasealeku estaliaren edo Gudarien Plazaren eraldaketa, argiteria publikoaren berrikuntza edo turismoaren digitalizazioa. Mugikortasunaren arloan, besteak beste, Irigarritasun Plana eta "2026 urte hasierarako tren zerbitzuak ordu erdiko maiztasuna izateko ETSren konpromisoa" aipatu dituzte. Eta etxebizitzari dagokionean, Amillagako urbanizazioan aurrerapausoak egin direla eta Osioko garapenerako lanketa ere aurrera doala gogorazi dute.

Etorkizunera begira, halaber, udala "asmo handiko" beste hainbat proiektutan murgilduta dagoela azaldu dute, "kultur ekipamendu berri bat, ludoteka bat, udal ordenantzen berrikuspina, azterketa sozioekonomikoa eta datozen urteetako hirigintza markatuko duen HAPO berri baterako bidea" aipatu.

Itziariko Lehen Hezkuntzako ikasleek eskola berrian abiatuko dute ikasturtea

Begoña Pedrosa Hezkuntza sailburua irailean estreinatuko den Itziariko hezkuntza zentro berrian izan zen ekainaren 18an, bertan egindako lanak ikuskatzen eta hauen berri ematen. Bisitan izan ziren Ana Delgado Luzaro ikastetxeko zuzendaria, Arantza Egaña Itziariko auzo alkatea, Alazne Txurruka Debako alkatea eta Amaia Urzelay Gipuzkoako Hezkuntzako lurralde-ordezkarria ere.

Udaletxe zaharra erabat birgaitu dute Lehen Hezkuntzako hiru ikasgela hartzeko; 48 haurrentzako toki izango du. "Jarduketa horrekin, Hezkuntza Sailak balioa eman dio ondare eta komunitate-balio handiko eraikin horri eta bizitza berri bat eman dio hezkuntza-espazio gisa", nabarmendu zuen sailburuak.

1,9 milioi euro inguru

Esku-hartzearen aurrekontua 1,9 milioi euro ingurukoa izan da eta eraikinarren jatorrizko egitura, fatxada babestuak eta arkitektura-elementu esanguratsuenak errespetatzen dituen birgaitze integrala egin dutela azaldu dute. Ikastetxe berriak 358,96 metro karratuko barne-azalera erabilgarria izango du, hiru solairutan banatuta, eta 132,86 metro karratuko azalera erabilgarria du kanpoaldean.



“Gustura erakutsiko nioke norbaiti nik dakidan guztia, eta are gehiago etxekoa baldin bada”

GLORIA SUKIA • Jostuna



Gloria Sukiak (Deba, 1942) bizitza osoa darama josten. Umetan hasi zen, panpinekin denbora-pasan, haria eta jostorratza bidelagun, eta nerabezaroan ekin zion jostintza ikasteari, Olabe baserrian neguan lan gutxiago izaten zutela aprobetxatuz. Galtzagile gisa jardun zuen lehenbiziko urteetan eta gerora euskal jantzi tradizionalak egiten aritu da, pasioz eta dedikazio handiz; urteotako ibilbideak egin du ezagun artisaua.

Badira baserritar jantziak eta euskal jantzi tradizionalak armairuetatik atera eta soinean jantzita irteteko egun seinatuak: Euskal Jaia, Santa Ageda, Zoro Feria... Eta, zalantzarik gabe, arropa horiek josten aritzen diren artisauen artean erreferenteetako bat da oraindik ere Gloria Sukiak. Ezagunak dira bere diseinuak, bai Deban, bai hemendik kanpo. 90eko hamarkadaren erdialdean hasi zen euskal jantziak egiten eta gaur egun, erretiroa hartu arren, oihala eta orratz artean jarraitzen du, beste erritmo batean bada ere. Urte hauetako jarduna eta ibilbidea errepasatu ditugu elkarrizketan.

Noiz hasi zinen josten?

Umetan hasi nintzen, denbora-pasan. Zortzi anai-arrebetan zaharrena naiz eta, baserrian ez nuen ez inor nirekin jolasteko, panpinei soinekoak josten pasatzen nuen denbora. Nagusiagoa egin nintzenean, 16 urte inguru nituela, Itziarrera joan nintzen josten ikastera; neguan lan gutxiago izaten genuen baserrian eta bi negu eman nituen bertako jostun ezagun batekin jostintza ikasten. Hurrengo neguan galtzak josten ikasi nuen Deban eta

gerora beste bi negu pasa nituen Lorenzo Olaizola sastrearekin ikasten, Deban bertan.

Ikasketak amaitu ondoren, zure kabuz hasi zinen lan-nean? Badakigu, adibidez, mertzeria bat izan zenuela.

21 urte nituela Lorenzorentzat galtzagile lanak egiten hasi nintzen; piezak etxean josten nituen. Gero, ezkondu egin nintzen eta hiru seme-alaba izan nituen. Eta haiek hazi zirenean, 1984an, mertzeria bat zabaldu nuen Debako Foruen Plazan. Lau urte beranduago, 1988an, denda hura itxi eta beste bat ireki nuen Zarautzen, Santa Marina kalean. Bertan, mertzeria izateaz gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen nituen.

Zeintzuk?

Joste lanak izaten ziren. Batez ere konponketak egiten nituen eta poliki-poliki jendea ezagutzen hasi nintzen. Egun batean ezagun batek Euskal Jairako jantzi bat egiteko eskatu zidan, eta hor hasi zen dena.

Beraz, kasualitatez hasi zinen euskal jantziak egiten?

Enkargu haren emaitza mertzeriako erakusleihoan jarri genuen ikusgai eta sekulako arrakasta izan zuen. Jantzi berezia zen eta atentzioa ematen zuen, jendea ez baitzegoen ohituta kalean halako zerbitzu ikustera. Era-



kusleihoan eduki ondoren, baserritar jantziak egiteko eskaerak jasotzen hasi nintzen, 90eko hamarkadaren erdialdean. Zarautzen bederatzi urte egin nituen guztira.

Nola gogoratzen duzu lehenengo enkargu hura?

Emakume batentzako jantzi zuri-beltz bat zen, baina desberdina aldi berean, ez zelako ohiko jantzi zuri-beltz loreduna. Enkargua egin zidanak ekarri zidan oihala eta bere gustura eta neurrira egin nuen dena.

Arrakasta izan zuen, beraz. Eskaera asko izan al zenituen gero?

Bai. Ezin nituen enkargu guztiak onartu eta mertzeria itxi nuen, konponketetan eta euskal jantziak josten buru-belarri aritu ahal izateko. 1996 inguruan pisu bat hartu nuen Zarautzen eta han egiten nituen joste lanak. Denborarekin, gero eta jantzi gehiago eskatzen zizkidatela ikusita, horretara bakarrik dedikatzea erabaki nuen. Hasieran bezeroek ekarritako oihalekin egiten nituen jantziak, baina gero nik erositako oihalekin eta osagarriekin hasi nintzen lanean. 2005az geroztik, euskal jantziak bakarrik egiten ditut eta azoketan ere ibiltzen nintzen arropak herriz herri saltzen. Ordutik, enkarguak etxean josten ditut, lasaia eta neure erritmora.

“2005az geroztik, euskal jantziak bakarrik egiten ditut eta azoketan ere ibiltzen nintzen arropak herriz herri saltzen”

Zu bakarrik aritzen zara?

Beti aritu izan naiz bakarrik. Neure kabuz moldatzen naiz: jantziak diseinatu, josi, enkarguak kudeatu... Hala izan da beti.

Euskal jantzi tradizional bat diseinatzea eta egitea jostea baino gehiago da. Nola moldatzen zara sortze prozesuan?

Nik neuk sortutako bizpahiru modelo dauzkat hasiera-hasieratik eta horiek hartzen ditut oinarri oraindik ere. Egia esan, ez dut asko aldatu lan egiteko modua. Lanik zailena alkandora egitea izaten da. Gona batek oihala asko behar du, baina ez dauka sekretu handirik.



“Beti aritu izan naiz bakarrik. Neure kabuz moldatzen naiz: jantziak diseinatu, josi, enkarguak kudeatu... Hala izan da beti”

“Garai bateko diseinuekin alderatuz gero, gaur egungoak alaiagoak eta ausartagoak iruditzen zaizkit”

Alkandorak, ordea, uste baino lan handiagoa ematen du. Alboetan eta luzeran oihal pixka bat gordetzen saiatzen naiz ni, bezeroak inoiz jantzia zabaldu edo luzatu behar badu ere, oihal zati hori erabiltzeko aukera izan dezan. Izan ere, bizitza osorako jantziak dira hauek.

Arropak eskuz egiten dituzu. Zenbat denbora behar izaten duzu enkargu bakoitza prestatzeko?

Emakumezkoen jantzi arrunt bat —blusa, gona, amantala eta bi zapi— aste eta erdian edo bi astetan egin dezaket. Baina traje landuagoa bada, gerruntze forratua edo beste elementu batzuk baditu, adibidez, normalean beste aste erdi edo astebete eskatzen dit. Orain jubilatuta nago eta eskaera gutxiago hartzen saiatzen naiz ni lasaiago ibiltzeko. Arrazoi horregatik, tailerrean hainbat modelo prestatzen ditut aurrez eta bezeroek nahi bezala konbina ditzakete; ez dute zertan aukeratu nik hasieran elkarrekin ipinitako gona, blusa, gerruntzea eta zapia. Bakoitzak nahi duen bezala osa dezake jantzia, gustuko osagaiekin. Emakumeentzat 42 neurriko arteko arropak izaten ditut eta gizonezkoentzat eta urtebetetik gorako haurrentzat ere aukera zabala dago. Enkarguzko lanak ere egiten ditut, baina gero eta gutxiago.

Batez ere antzinako euskal jantziak egiten dituzu. Zertan oinarritzen zara arropa diseinatzeke orduan? Gehienetan liburu zaharretan begiratzen dut, baina

kalean ikusten ditudan diseinuekin eta jantzietan ere jartzen dut arreta. Ideiak hartzeko ahal dudana guztia aprobetxatzen saiatzen naiz.

Zer nolako materiala erabiltzen duzu? Oihalak eta bestelako osagarriak erraz aurkitzen al dituzu?

Egia esan, gero eta zailagoa da oihalak eta bestelako gauza guztiak eskuratzea. Izan ere, oihalak eta koloretako puntillak egiten zituzten lantegi asko itxi dituzte hemen azken urteotan eta antzeko zerbait gertatu da koloretako botoi landuak egiten zituzten fabrikekin ere; beraz, benetan zaila da gaur egun material hori lortzea. Kanpotik ere ekartzen ditut gauzak; herritik irteten edo oporretara joaten naizen bakoitzean zerbait erosteko aprobetxatzen dut beti.

Zer bezero mota duzu gaur egun? Nor etortzen zaizu baserritar jantzien bila tailerrera?

Euskal Herri osoko jendea etortzen da. Aurreko batean, adibidez, Zaragozara saldu nuen brusa bat, baina batez ere Arrasateko eta inguruko herrietako bezeroak dauzkat.

Urteko zein garaitan saltzen duzu gehien? Baserritar jantziak ospakizun edo egun seinalatu batzuetan bakarrik izan ohi ditugu prest...

Denetarik izaten da. Euskal Jaia bezalako ospakizunetan gehiago saltzen dut, bai, baina batzuetan ez-



kontzetan ere erabiltzen dituzte jantziak eta dantza taldeak ere etortzen zaizkit arropa bila.

Zer garrantzi ematen zaio estetika tradizionalari? Ohiturak eta xehetasunak zaintzen al ditugu gaur egun?

Tradizioari garrantzi handia ematen zaiola esango nuke. Jende askok mantentzen ditu lehengo ohiturak eta nik ere hala egiten dut. Egia da, hala ere, gaur egun jendeak diseinu desberdinak eskatzen dituela eta hori eskaintzen ere saiatu behar gara. Izan ere, orain inork ez du nahi betiko jantzi tradizionala.

Asko aldatu al dira euskal jantziak hamarkada hauetan?

Lehen zuri-beltza zen nagusi eta batzuetan beltza urdin ilunagatik ordezkatzek zen, baina ez zegoen beste aukerarik. Orain, ordea, estilo bera mantendu arren, askoz ere kolore gehiago daude aukeran. Garai bateko diseinuekin alderatuz gero, gaur egungoak alaiagoak eta ausartagoak iruditzen zaizkit. Jendeak hori nahi du eta gu horri erantzuten saiatzen gara.

83 urte dituzu, Gloria. Josten jarraituko duzu?

Bai, osasunak, hezurrek eta ikusmenak laguntzen didaten bitartean jarraituko dut lanean. Hala ere, ez naiz lehengo erritmo berean aritzen. Gizonezkoen galtzak egiteari laga nion, adibidez. Prakek lan handia ematen dute eta gainera oso garestiak dira; beraz, eskaera gutxi izaten ditudanez, gehiago ez egitea erabaki nuen. Gi-

zonezkoen brusak eta txalekoak, berriz, noizean behin egiten ditut, tailerra bisitatzen duenari zerbait eskaintzeko asmoz. Izan ere, nik dakidala behintzat, hemen inguruan ez dago gizonentzat horrelako brusak egiten dituen beste inor.

Erreleboa hartuko al dizu norbaitek? Urteotan ikasitakoa irakasteko prest egongo zinateke?

Gustura egingo nuke, noski. Nire seme-alabek ez dute jakin-minik edo interesik azaldu, baina etxeko beste batek behin baino gehiagotan esan dit ogibidea gogoko duela eta ikasi beharko lukeela. Hala ere, oraindik ez da animatu, beste saltsa batzuetan sartuta dabil eta... Gustura erakutsiko nioke norbaiti nik dakidan guztia, eta are gehiago etxekoa baldin bada. Hori bai, beti aipatu izan dut honetatik bakarrik ezin dela bizi eta ezinbestekoa dela afizioa izatea. Ni ere ez naiz honetatik bizi, oporretara joateko dirua izaten laguntzen didan arren. Hau nire bokazioa da, nire zaletasunik handiena. Josteak asko lagundu zidan gaixo egon nintzenean ere.

Zer zentzutan?

Bihotzekoak eman zidan iaz, abuztuan, eta hori gertatu ondoren ez nuen ezertarako gogorik. Berriz ere josten hasteak lagundu zidan bizipoza berreskuratzen, pixkanaka-pixkanaka. Orain ez dizkiot ordu asko eskaintzen joskintzari, baina tarte horietan beti egoten naiz pozik.

Banatu dituzte aurtengo Ostolaza Sariak

Joan den ekainaren 14an banatu zituzten Ostolaza Sariak, Kultur Elkarteko aretoa jendez beteta zegoela. Udalerriko kultur jarduera aberasten laguntzen duten herritarren edo erakundeen lana aitortzen dute sariak eta aurtengoak Jose Ignacio Trekuk, Nagusilane, Haitz-Haundi Elkarte Artistikoak eta Josu Salegik irabazi dituzte. Bigarren urtez jarraian, herritarrek proposatu dituzte hautagaiak eta epaimahaiak hartu du azken erabakia (behean ikus dezakezue balorazioa). Sari banaketa ekitaldia Kultur Elkarteko Bazkidearen Egunean egin zuten; ez zen izan, ordea, eguneko ekintza bakarra. 80 bat bazkidek herri bazkaria egin zuten gero paseo estalian eta iluntzean Bidelapurak taldearen musika kontzertua izan zen Gaztetxean.



Sortzaileak Saria: Jose Ignacio Treku

"Margolaritzan egindako ibilbide luze eta etengabeagatik. Debako zein Debabarreneko beste herri batzuetako ikasleekin pinturaren arloan egin duen lan pedagogikoagatik. Bere paletatik ateratako koloreak hainbat kontinentetako etxeak apaintzen eta alaitzen dituzten artelan bihurtu direlako. Gure herriaren historia, kondairak eta etnografia irudi bilakatzeagatik eta egindako lanek gure herriko kultura zabaltzen lagundu dutelako".

Dinamikak Saria: Nagusilan Elkarrea

"Kolektibo honek nahi gabeko bakardade egoeran bizi diren adineko pertsonen laguntza ematen die. Beren etxeetan, eguneko zentroetan, egoitzetan... Telefonoz batzuetan, kafe bat partekatuz beste batzuetan, baina gizatasunez beti. Elkarriketa bat, paseo bat, irakurketa partekatu bat... eguneroko 'keinu errazak' dira, behar bezala baloratzen ez ditugunak benetan horien beharra daukagun arte. Gaur egun, herriko taldeak hamar boluntario ditu; gehien behar dutenei denbora, arreta eta maitasuna eskaintzen dieten hamar pertsona".

Ezinbestekoak Saria: Haitz-Haundi Elkarte Artistikoa

"Elkarte honek hainbat hamarkada daramatza artearen hazia ereiten. Borondatezko lana, eskuzabaltasuna, iraunkortasuna. Pintura ikastaroak, erakusketak, tailerrak... urte hauetan antolatutako jarduera bakoitza herriko artisten sormena loratzeko ate ireki bat izan da. Taldekideen isileko lanari esker, herriko artistek formakuntza jasotzeko eta beren sorkuntzak herriari erakusteko aukera izan dute".

Hazia Saria: Josu Salegi

"Gazte-gaztetatik aktiboki parte hartu du herriko musika eszenan. Musika Eskolan eta Debako Musika Bandan hasi zituen musika ikasketak eta, pausoz pauso, bere tokia lortu zuen Musikene Euskal Herriko goi mailako musika ikastegian. Prestakuntza akademikoaz harago, bere talentua kaleetan eta eszenatokietan garatu du. Energia positiboa eta pasioa; saxofonista nekaezina da, jazzaren militantea. Debako eta Lekeitioko musika eskoletako irakaslea. Jazzez Blai jaialdiaren, kontzertuen, *jam session*-en... eta beste proiektu askoren antolatzailea da".



Kultur Elkarteko zuzendaritzako kideak ekitaldiaren hasieran.



Kultur Elkarteko aretoa jendez beteta zegoela banatu zituzten sariak.



Rafael Bravo sari banaketa ekitaldian.



Elkarteko bazkideen bazkaria paseo estalian.



Ohorezko aureskua dantzatu zioten Jose Manuel Ostolazaren irudiari.



Hector Aldalur musikariaren emanaldia.



Paella erraldoiak prestatu zituzten herri bazkarirako.



Bidelapurra taldearen kontzertua Gaztetxean.

Iparraldeko argiak

Arg.: IBAILOIOLA

Bi hilabete luze eguzki gabe.
Norvegiako iparraldean hotza ez da
neguak dakarren oztopo bakarra.
Elur-oreinei begien kolorea aldatzen
zaie gau polarraren iluntasunera
egokitzeko: horiak udaran, urdin bizi
bilakatzen dira udazkenean, aurora
borealen etorrerarekin batera.





154 haurrek parte hartuko dute abiatzear diren Kolorez Blai euskal udalekuetan




Ekainaren 30ean emango diete hasiera aurtengo Kolorez Blai euskal udalekuei eta egitasmoak uztailaren 24ra arte iraungo du. Zuhatza-Kolore Anitzeko kideek jakinarazi dutenez, bertan HH5etik LH6ra bitarteko

154 umek parte hartuko dute. Bi txandatan arituko dira, adinaren arabera banatuta. Ekainaren 30etik uztailaren 11ra egingo den lehenengo txandan HH5, LH1 eta LH2 mailetako 72 partaide izango dira eta hilarren 14tik 24ra egingo den bigarren txandan, aldiz, LH3tik LH6ra bitarteko 82. Lantaldea 11 begiralek osatuko dute eta koordinazioa Sara Goikoetxearen esku egongo da.

Aurreko urteetako dinamikari eutsiz, aisialdiko ekin-tzak astelehenetik ostiralera egingo dituzte, 09:30etik 13:00etara. Uztailaren 25a jaieguna izanik, ez da jarduerarik egingo, baina 16:30era artekoa izango da bezperako eskaintza.

Partaideen gurasoekin eta tutoreekin bilera bat egingo dute hezitzaileek, udalekuen nondik norakoak azaltzeko eta zalantzak argitzeko. Ekainaren 27an izango da, 18:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.



UDAKO IKASTARO TRINKOA

Noiz: Irailaren 8tik 26ra (astelehenetik ostiralera). Egunean 2 orduko saioak. Guztira 30 ordu. Elgoibarren emango da ikastaroa.

Maila: C1 eta C2.

Matrikulaldia: uztailaren 1etik 18ra eta irailaren 1etik 5era.

INFORMAZIO GEHIAGO

☎ 943 74 27 31

✉ udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

2025-2026ko IKASTAROAK

Ikasturte osoa. Aurrez aurreko ikastaroak. Autoikaskuntza. 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.

Maila: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2.

Matrikulaldia: irailaren 1etik 23ra.

Ordutegia: 11:00etatik 18:00etara.

INFORMAZIO GEHIAGO

☎ 943 19 22 36

✉ udaleuskaltegia.deba@debabe.eus

Uztailaren 7a da Umeen Eguneko danborradan izena emateko azken eguna



Iazko Umeen Eguneko danborrada, Foruen Plazan.



Bapatean Zirkoko kiaz Plaza Zaharrean aurkeztutako ikuskizuna.

Dagoeneko hasiak dira abuztuaren 15ean ospatuko den Umeen Eguna prestatzen. "Egun polita izango da umeentzat eta gaztetxoentzat, hainbat jarduera antolatzen ari baikara: puzgarriak eta ur parkea, Bapatean Zirkoren *Pon eta Pa* ikuskizuna... Herri bazkarian, gainera, catering zerbitzua eskainiko da aurten. Eta musika ere egongo da, Oinutsik taldearen erromeria izango baita Plaza Zaharrean", azaldu du antolakuntzan diharduen herritar taldeak.

Danborrada arratsaldean izango da, 17:30ean, eta parte hartzeko izen-ematea zabalik dago. Aipatu dutenez, Internet bidez soilik eman daiteke izena eta uztailaren 7a da horretarako azken eguna. Interesa dutenek *labur.eus/umeenegunekodanborrada2025* estekan ikusgai dagoen inprimakia bete beharko dute, adina zehaztuz eta zein postutan parte hartu nahi duten adieraziz.

Danborrada amaitu ondoren, jaialdia egingo da plazan (18:00etan), eta gero ogitartekoak banatuko dituzte. "Ederra litzateke LHko maila guztietako haurrek eta

gaztetxoek jaialdian parte hartzea, festa anitzagoa eta aberatsagoa izan dadin", nabarmendu dute.

Eguna borobiltzeko, play-back lehiaketa antolatu dute LH3tik gorakoentzat; antolatzaileek azaldu dutenez, bakarka nahiz taldeka parte hartu daiteke eta "euskarazko abestiak erabili beharko dira nahitaez". Parte hartzeko alde aurretik eman behar da izena, uztailaren 7a baino lehen; danborradarako prestatu duten inprimaki berean egin daiteke izen-ematea.

Entseguak eta boluntarioak

Bost entsegu egingo dituzte danborrada prestatzeko. Lehen hitzordua uztailaren 21ean izango da, 19:00etan, Ifar kaleko Luzaro eskolan. Uztailaren 28an eta abuztuaren 4an, 7an eta 11n izango dira hurrengo saioak.

Azkenik, antolatzaileek boluntarioen beharra ere azpimarratu dute. Laguntzeko prest daudenek danborradan izena emateko erabilitako inprimaki bera bete beharko dute.

Debatek
INFORMATIKA

Aholkularitza
Produktuen salmenta
Zerbitzu teknikoa

747 42 39 01
Debatek_

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tel.: 943 192 576
20820 DEBA

Taxi Alain
Zure zerbitzurik onena

636 135 008 • www.taxideba.eus

Arrietak zilarra lortu du aurten ere Espainiako Boccia Txapelketan



Espainiako Boccia Txapelketan parte hartzeko aukera izan du beste behin ere Amagoia Arrietak eta iazko bigarren postua errepikatu du bertan. Lepotik zilarrezko domina bat zintzilik zuela itzuli zen ekainaren 13tik 14ra bitartera Torrevellán (Alicant) ospatutako norgehiagokatik.

Bakarka lehiatu zen BC1 kategorian eta, txapelketa ona egin zuen arren, azken partidaren ez zuen urrea lortzeko aukerarik izan. Hala ere,

kirolaria pozik azaldu da egindako lanarekin eta lorpen garrantzitsua izan dela nabarmendu du. "Zilarrezko domina lortu izanak meritu handia dauka, baina nire helburua urrea irabaztea zen eta txapelketa hobe egin nezakeela iruditzen zait. Egia esan, nekeak jota iritsi nintzen finalera eta ezin izan nuen nire onena eman", aitortu du.

Finaleko partida izan ezik, gai-nontzeko norgehiagoka guztiak irabazi zituen Dordoka klubeko kirolariak. Desiree Segarraren aurka ez zuen asmatu, ordea, eta 0-7 galdu zuen.

Arrieta Iratxe Astigarraga entrenatzaile berriarekin joan zen txapelketara eta debarrarekin gustura dabilela aipatu du. "Primeran kontontzen gara. Entrenatzaile indartsu eta trebe bat aurkitu dut eta lagun handia da. Gainera, desgaitasunaren hainbat alderdi ezagutzen ditu eta errespetu handiz laguntzen dit".

Zabalik dago Kopraixetan egingo den Itziar Trail proban izena emateko epea

VIII. Itziar Trail proba datorren abuztuaren 2an jokatuko dute, Kopraixen egitarauaren baitan. Antolatzaileek azaldu bezala, korrikalariak 16:00etan abiatuko dira, Zabalsoro frontoiaren alboan kokatutako irteera gunetik, eta 13,9 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Hainbat sari banatuko dituzte lehia bukatzean.

Proban parte hartu nahi dutenek *kirolprobak.com* webgunean eman dezakete izena. Uztailaren 30ean amaituko da izen-ematea eta antolatzaileek garaiz ibiltzeko deia egin dute, gehienez ere 150 lagunera mugatu baitute partaide kopurua.

Inskripzioa uztailaren 15a baino lehen egin ez gero, 21 euro ordaindu beharko dira pertsonako. Data horretatik aurrera, berriz, 25 euroan jarri dute izen-ematea. Antolatzaileek gogorarazi dutenez, egunean bertan ez da izango izena emateko aukerarik.

Dena prest dute ekainaren 29an XI. Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia jokatzeko



Ekainaren 29an jokatuko da Eibar Igerixan Kirol Klubak antolatutako Flysch Beltza igeriketa zeharkaldiaren hamaikagarren edizioa. Parte-hartzaileek 3.000 metroko ibilbidea egingo dute, Mutrikuko portutik abiatu eta Debako hondartzan amaituz.

Irteera ordua 11:00etan jarri dute eta proba egiteko gehienezko denbora bi ordukoa izango da. Denbora tarte hori gaintzen duten igerilariak probatik kanpo geratuko dira, segurtasun-neurri gisa.

Izen-ematea ekainaren 26an

amaitu zen eta antolatzaileek ohartarazi dute egunean bertan ezingo dela izenik eman.

Bestalde, dortsalak, txanoak eta denbora neurtzeko txipak ekainaren 29an banatuko dituzte, 08:00etatik aurrera, Debako hondartzaren ondoan horretarako prestatutako gune berezian.

Autobusak

Mutrikura joateko autobus zerbitzu berezia eskainiko dute aurten ere. Lehen autobusa 09:15ean irtengo da eta azkena, berriz, 10:00etan.

Proba hasi baino ordu erdi lehenago informazio saio labur bat egingo dutela aipatu dute, "arauak gogorarazteko eta zalantzak argitze"ko.

Itziarrek Gipuzkoako Herri Txikietako Areto Futbol Kopako hirugarren postua lortu du



Gael elkarteak antolatutako Gipuzkoako Herri Txikietako Areto Futbol Txapelketan parte hartu du Itziarrek aurtien ere. Ligan bigarren geratu ondoren, A Kopan lehiatu da taldea eta, nahiko txapelketa ona egin ostean, hirugarren postua eskuratu du.

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeak nor-gehiagoka ekainaren 7an jokatu zen, Bidania-Goiatzeko pilotalekuan. Eta Leaburu-Txaramaren aurka 7-6 irabazita lortu zuen, hain zuzen ere, hirugarren geratzea.

Antolatzaileen esanetan, "oso partida gogorra eta orekatua" jokatu zuten bi taldeek. "Neurketak bi zati ezberdin izan zituen. Lehenengoan, Itziar jauna eta jabe izan zen kantxan eta atsedenaldira 6-1eko emaitzarekin iritsi ziren. Bigarren zatian, ordea, bazirudien alde handia egon zitekeela, baina gora etorri ziren aurkariak eta jokoaren kontrola berreskuratu ondoren, ia emaitza berdintzea lortu zuten" laburbildu dute.



17 urtez azpiko Marokoko futbol selekzioak Omar Mariño deitu du

Realaren harrobiko Omar Mariño erdilari debarrak 17 urtez azpiko Marokoko selekzioarekin debutatu berri du. Bi lagunartekotan parte hartu du ekainean: hilaren 3an 25 minutu jokatu zituen Kanadaren aurkako lehian eta hiru egun beranduago titular gisa aritu zen 60 minutuz Japoniaren aurkako neurketan.



Bazkari baten bueltan agurtu du denboraldia Amaiak-Batek

Amaiak-Batek denboraldi amaierako batzar orokorra eta bazkaria egin zituen ekainaren 21ean. Guztira 450 bat jokalaria, entrenatzaile, bazkide eta zale batu ziren Aldats pilotalekuan egindako paella janean.

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

ORAIN
ileapaindegia

943 19 21 09
Hondartza kalea, 2
Deba

SUKIA
Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

Ekaina / Uztaila

EKA. 27 (OSTIRALA)

BILERA

18:00 Kolorez Blai udalekuean parte hartuko duten haurren gurasoeekin eta tutoreekin. Udaletxeko osoko bilkuren aretoa.



EKA. 28 (LARUNBATA)

ELKARTASUN AZOKA

11:00 Dirua Maliko Saint Paul eskolara bideratuko da. Udaletxe azpiko arkupeak.

IRTEERA GIDATUA

11:00 Lastur familian. San Nikolas Plaza. Erreserbak: geoparkea.eus

KULTUREKIN

20:00 Kontzertua: Peppermint. Kultur Elkarteke plaza.

SAN PEDRO BEZPERA

21:00 Kalez Kale txistulari taldea. Musika Eskola.
22:00 Zahagi erretzea. Plaza Zaharra.

EKA. 29 (IGANDEA)

ELKARTASUN AZOKA

11:00 Dirua Maliko Saint Paul eskolara bideratuko da. Udaletxe azpiko arkupeak.

FLYSCH BELTZA IGERIKETA ZEHARKALDIA

11:00 Mutrikuko portua. Informazioa 26. orrialdean.

UZT. 2 (ASTEAZKENA)

ODOL ATERAKETAK

16:30-20:10 Txanda eskatzeko: 634 07 34 98. Burugorri gaina.

MAREA GORA HITZALDIAK

19:00 'Haurra izatea gaur egungo munduan' (Pilar Kaltzada). Kultur Elkartea.

ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

20:00 Xabier Badiola. Gaztetxea.



UZT. 4 (OSTIRALA)

ITURRI ONDOAN

22:00 'Berto saio espekulatiboa'. Plaza Zaharra.

UZT. 4-6

MENDI IRTEERA

Pirinioetara irteera bateratua.

UZT. 5 (LARUNBATA)

KONTZERTUA

13:30 Aitzuri abesbatza. Kultur Elkarteke plaza.

IRTEERA GIDATUA

13:30 Debatik Zumaiara itsasontziz. Portua. Erreserbak: geoparkea.eus

KALEJIRA

19:00 Debako Musika Banda.

KONTZERTUA

20:00 Nazioarteko FLYSCH Organo Jaialdia. Santa Maria eliza.

UZT. 7 (ASTELEHENA)

PENTSIODUNEN MOBILIZAZIOA

12:00 Foruen Plaza.

UZT. 9 (ASTEAZKENA)

UMEENTZAKO IKUSKIZUNA

18:00 'Alaia galtzagorria: mitoen bidaia' (Ostomila Txotxongiloak). Simon Berasaluze Plaza.



MAREA GORA HITZALDIAK

19:00 'Debako Arte Eskola. Sorkuntza, eztanda eta Haur Adierazpen Tailerra' (Jose Mari Larramendi eta Mikel Mendizabal). Kultur Elkartea.

ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

20:00 Blues tailerra. Gaztetxea.



UZT. 10 (OSTEGUNA)

IRTEERA

Sanferminetara autobusez. Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez.
08:30 Hondartzako sarrera.
08:40 Itziar.



UZT. 11 (OSTIRALA)

ITURRI ONDOAN

22:00 Antzerkia: 'Dada ü Lala'. Plaza Zaharra.

UZT. 12 (LARUNBATA)

BISITA GIDATUA

10:30 'La otra historia de Sasiola' (Alex Turrillas). Plaza Zaharra.



ZAINTZAKO BOTIKA Egunez (09:00-22:00)

ZALDUEGI

Ekainak 28, 29 eta uztailak 7, 8, 9, 10, 25, 26, 27.

BURGOA

Uztailak 11, 12, 13, 21, 22, 23, 24.

Larunbat goizetan beti bat irekita (09:30-13:00)

BURGOA Ekainak 28 eta uztailak 5, 26.

ZALDUEGI Uztailak 12, 19.

OHIKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera
(09:00-13:45 / 16:30-19:30)

Guardia egunetako igandeak
eta jaiegunak (11:00-13:00)

Itziar botikina (09:00-12:30)

BURGOA 667 33 88 90
ZALDUEGI 669 26 22 01



IRTEERA GIDATUAK

11:00 Lastur familian. San Nikolas Plaza.

18:30 Debatik Zumaiara itsasontziz. Portua.

Erreserbak: geoparkea.eus

UZT. 16 (ASTEAZKENA)

MAREA GORA HITZALDIAK

19:00 '¿Cuántos peces hay en el mar?' (Xabier Irigoien). Kultur Elkartea.



ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

20:00 Neu. Gaztetxea.

UZT. 18 (OSTIRALA)

ITURRI ONDOAN

22:00 'Begiradak' ikuskizuna. Plaza Zaharra.



UZT. 19 (LARUNBATA)

IRTEERA GIDATUA

11:30 Debatik Zumaiara itsasontziz. Portua.

Erreserbak: geoparkea.eus

GALERNA FESTA

Goizean Kuadrillen arteko kirol txapelketak.

15:00 Bazkaria. Zumardiko karpa.

19:00 Elektrotxaranga.
22:30 Kontzertua: Rodeo + Skarreggaekasko. Zumardiko karpa.



XAKE FESTA

Aldats pilotalekua. Informazio gehiago: berriketan.eus

UZT. 20 (IGANDEA)

IRTEERA GIDATUA

13:30 Debatik Zumaiara itsasontziz. Portua.

Erreserbak: geoparkea.eus

UZT. 21 (ASTELEHENA)

ENTSEGUA

19:00 Umeen Eguneke danborrada prestatzeko. Ifar kaleko Luzaro eskola.

UZT. 23 (ASTEAZKENA)

MAREA GORA HITZALDIAK

19:00 'La psiquiatrización de la sociedad y la mirada al futuro' (Imanol Querejeta). Kultur Elkartea.

ASTEAZKEN AKUSTIKOAK

20:00 Glutenbakuak. Gaztetxea.

UZT. 24 (OSTEGUNA)

IRTEERA GIDATUA

17:30 Debatik Zumaiara itsasontziz. Portua.

Erreserbak: geoparkea.eus

ITURRI ONDOAN

22:00 Kontzertua: Xiberoots. Plaza Zaharra.

UZT. 26 (LARUNBATA)

IRTEERA GIDATUAK

10:30 'Marearteko Zabalgunea'. Sakoneta.

11:00 Lastur familian. San Nikolas Plaza. Erreserbak:

geoparkea.eus

BISITA GIDATUA

11:00 Santa Maria eliza (Alex Turrillas). Plaza Zaharra.

DEBAROCK FESTIBALA

Herriko musika taldeen kontzertuak.

13:00 Kultur Elkartea.

18:00 Zumardiko karpa.



IRTEERA GIDATUAK

17:00 'Gotikoaren altxorra Deban'. Turismo bulegoa.

18:30 Debatik Zumaiara itsasontziz. Portua.

Erreserbak: geoparkea.eus

DANTZALDIA

23:00 Debako Musika Banda. Foruen Plaza.



UZT. 28 (ASTELEHENA)

ENTSEGUA

19:00 Umeen Eguneke danborrada prestatzeko.

Ifar kaleko Luzaro eskola.

ERAKUSKETA

'Gerizpearen hutsunea'. Arina Rac artista bisuala

Uztailaren 31ra arte. Klaustroa.

UDAKO OPORRALDIA

Gaztelekuaren ekimenez

Askotariko ekintzak izango dira 2009, 2010, 2011 eta 2012an jaiotakoentzat.

Izen-ematea Gaztelekuan egin daiteke, astelehene-

tan, 10:00etatik 13:00etara.

Izena emateko azken

eguna: uztailaren 7a.



ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz) / 635 756 295 / 629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

MEZU EZKUTUA

HIZKIEN TAULA

E
178

B
143

K
94

S
14

D
328

Z
1710

N
340

A
12

G
345

U
73

R
134

Nola jolastu?
Denbora-pasa honetan azpialdeko mezu ezkutua asmatu beharko duzu. Lehendabizi, behean agertzen diren eragiketa matematikoak egin beharko dituzu, zenbaki bakoitza hizki batek ordezkatzeko baitu. Zorte on!

Erantzuna:

A

Z

N

R

A

A

E

R

B

G

E

E

A

K

D

B

S

U

E

ARIKETA MATEMATIKOAK

1. 214+114

2. 73+105

3. 120+23

4. 420-408

5. 111+229

6. 109+69

7. 7+66
8. 40-26

9. 100-6

10. 200-22

11. 98+36

12. 37-25

13. 852+858

14. 170-27
15. 17-5

16. 303+42

17. 102+76

18. 172-38

19. 10+2

MEZU EZKUTUA

1	2	3	4	5			
6	7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19		



Deba
Hortz klinika

Hondartza Kalea, 20
20820 Deba, Gipuzkoa

info@debaklinika.com
T. 943 19 28 19

Odontologia orokorra
Kirurgia
Implanteak
Ortodontzia tradizionala
Invisalign ortodontzia (Ikusezina)
Haurren odontologia

* Interesik gabeko tratamendu-finantzaketarako aukera ere eskaintzen dugu.

Uzuri
optika audio



**PILARIK GABEKO
AUDIFONOAK
PROBATU
HILABETEZ DOAN**

Ostolaza kalea 7,
20820 Deba
Tel: 943 19 21 92

RPS: 183/12



www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!

943 12 13 95



Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



Seven Clovers
Irish pub

943 191 295



Sukalde eta etxe altzarien
erakusketa izugarria
3000m²

Itziariko gaina

T.: 943 19 91 00

F.: 943 19 91 01

ITZIAR-DEBA (Gipuzkoa)

endaneta@mueblesendaneta.com
www.mueblesendaneta.com

ITURLAN, S.L.

Iturgintza - Berogailuak

Mogel kalea, 1 - Behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tfno. Mugikorra: 635 717 732
Tfno.-Fax: 943 192 553
fontaneriaiturlan@iturlan.com



Berriketan .eus

parte hartu
parte izan



ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27
943 19 14 47
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Mikel
ITURGINTZA

- GASA
 - BEROKUNTZA
 - ENERGI TERMIKO
- ETA BERRIZTAGARRIAK



Hondartza 10 behea,
20820 Deba

T. 943 191 774

M. 699 975 206

info@mikeliturgintza.eus



Agustín
Larrañaga Elorza

Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)

ENGLISH
SQUARE



SCHOOL
OF ENGLISH

Uztailleko ikastaroak:

First / Advanced
DBHko eta Batxilergoko
errefortzua

Sokagin kalea 12, DEBA
648 268 206

info@english-square.net



Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALEN ZUZENeko ETA ONLINE SALMENTA



**KANTAURIKO
ANTXOAK ETA
BOKARTAK**



**HEGALUZZA
ETA
HEGALABURRA**



**ESKUZ
EGINDAKO
KROKETAK**



**BESTELAKO
GOURMET
PRODUKTUAK**



Zuzeneko salmentaren udako ordutegia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00-18:00

Larunbatetan: 10:00-14:00



Online salmenta: www.tiendayurrita.com



sarean edota dendan erosteagatik

%20ko deskontua

Zuzeneko salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan, abuztuaren 31ra arte erabilgarri (kupoi hau aurkeztuz)

Online salmentan: 50 €-tik gorako erosketetan ondorengo kupoia sartuz: #UDA2025



(+34) 629 51 54 14



pedidos@yurritagroup.com



Casa Mauleon Etxea